

Chimeresen
antzezlan berriak
haurren esklabotza
du hizpide

■ *Estreinaldia irailaren
24an izanen da
Miarritzen*

Eneko Bidegain / Miarritze

CHIMERES antzerki taldeak obra berri bat aurkeztuko du datorren astean. *Maintenant, c'est lui qui a peur de moi* (Orain bera da nitaz beldur) egiazko gertakari batean oinarritua da. Jean-Marie Broucaretek Pakistango haur baten istorioa kondatzen du: «Iqbbal Masih sei urtez haur esklabo gisa bizi izan zen».

Gertakari hori, asmatu hizkuntza batean antzeztu dute bost jokalarik, eta maskarek toki handia dute joko horretan. Oso lan bisuala da, koreografiak eta jestuek ere garrantzia badutelako.

Eta hizkuntza asmatua izatearen bidez, Pakistango doinu baten sartzen saiatu dira idazlearen arabera. Pakistango hizkuntzak, euskara eta inglesaren arteko nahasketak soinu berezia dakar eta bizitasun handia eragiten du. Aldian aldiko itzulpena izanen da frantsesez. Saioak irailaren 24, 25 eta 26an dira Miarritzen,

Bertolt Brechten 'Galileo' antzezlan igandea arte emango dute Barakaldon

«Edertasuna, dibertimendua eta konpromezua» biltzen ditu ikuskizunak

Montse Arregi / Bilbo

Antzerki garaikideko egile nabarmenetakoaren lana izango da ikusgai asteburuon Barakaldo antzokian: Bertolt Brechten *Galileo*. «Edertasuna, dibertsioa eta konpromezua» biltzen dituen antzezlan horrek Valentziako eta Asturiasko hainbat profesionalek osatutako konpainiak eszenaratuko du. Taldeko partaideek testuaren «gaurkotasuna» azpimarratu zuten atzo Bilbon.

BERTOLT BRECHTEN *Galileo* antzezlanak «umore asko, egoera barregarriak, esaldi zorrotzak, musika eta maskarak» ekarriko ditu Barakaldo antzokira gaur, bihar eta etzi. Euskal Herriko ikusleriak lana «ondo ulertuko» duela deritzote antzezleek.

Teatres de la Generalitat Valenciana, Teatro Jovellanos eta Tubo Magico konpainia asturiarra elkartu dira *Galileo*ren egitasmoa aurrera ateratzeko. Santiago Sanchez aritu da zuzendari lanetan eta Manuel de Blas aktorea



XOUSE SIMAL

Galileo antzezlanean ariko diren aktoreetako batzuk, atzo Bilbon.

izango da XVII. mendeko zientzilaria gorpuztuko duena. Haren aldamenean izango dira agertokian Paca Ojea, Carles Montoliu, Xus Romero edota Xuacu Carballido. Maskaren diseinuan lan bikaina egin du Sue Plummerrek.

Antzezlaneko egoera asko «gaurkoen antzekoak»

Aktoreek atzo Bilbon adierazi zuten, *Galileo* XVII. mendearen hasiera bizi izan bazen ere, «antzezlanean agertzen diren egoera asko gaur eguneko antzerkoak dira. Hor dago mundua aldatu daitekeenaren itxaropena, autozentsuraren gaia, zergatik izkutatzen dira hainbat gauza? Zein interes daude atzean?». Brechten testuak ikuslea «hausnarketara» gonbidatzen duela deritzote, «baina ez da inolaz ere antzezlan aspergarria, oso dibertigarria baizik», ziurtatu zuten.

Bertolt Brechtek «guztia zalantzan» jartzen du antzezlanean *Galileo* lanaren bitartez.

Euskarak tokirik ez egitarauan

■ BARAKALDOKO Sasiburu Euskaldunon Elkartek bertoko Antzokiaren egitarauak euskara «guztiz baztertu» duela salatu du. Izan ere, Barakaldo antzokiak abendura bitarte emango duen egitarauan, Benito Lertxundi kantariak emango duen kantaldia da euskaraz izango den ekitaldi bakarra.

Antzerki emanaldi ugari izango dira hurrengo hiru hilabeteotan Barakaldo antzokian, guztiaz gazteleraz. Gainontzeko musika eta zinema ekitaldietan ere euskaraz ez du presentziarik izango.

Barakaldoko Sasiburu Euskaldunon Elkarteko kideek heldu den urtariletik aurrera, egoera hori alda dadila eskatuko diete Barakaldoko antzoki publikoko arduradunei igorriko dieten gutun baten bitartez.